



## 2024/2025 IKASTURTEKO BIRBAREMAZIO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIO ETA BERRI GARRANTZITSUAK

### BERRITASUNAK:

- Birbaremazio-prozedura horren barruan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.1.b) artikuluan ezarritakoa betez, 2023/2024 ikasturtean karrerako funtzionario izendatutako pertsonak kanporatuko dira, hain zuzen, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan izendatutakoak, zeina Hezkuntzako sailburuaren irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduen bidez deitu baitzen. Karrerako funtzionario izendatuak izan diren kidegoari dagozkion espezialitateen zerrendetan baztertuko dira.
- Prozedura honetan, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoen eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidego berriaren zerrendak berrantolatu dira, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 7ko Aginduan ezarritakoa betez. Agindu horren bidez, seigarren aldiz aldatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua. Halaber, egoera horrek eragina du merezimenduen baremoan, laugarren xedapenean (baremoa, "Beste titulazio batzuk" atala) eta bosgarren xedapenean (baremoa, "Lan-esperientzia" atala, Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoko 10 espezialitateetarako bakarrik zenbatzen dena) adierazten den bezala.

### Izangaiaren FITXAN:

- Prestakuntza akademikoa" atalean, izangaiak dituzten eta behar bezala egiaztatu diren titulazio akademiko guztiak agertzen dira. Ez da inola ere agertzen izangaiak beste titulazio batzuen atalean lortzen duen guztizko puntuazioa, pertsona berarentzako puntuazio hori alda baitaiteke, dagoen espezialitateen kidegoan/mailan sartzeko baldintzen arabera. Beraz, izangaiaren fitxan administrazioaren esku dauden tituluen eta batez besteko noten datua baino ez da agertzen. "Beste titulazio batzuk" ataleko puntuazioa behin-behineko zerrendak argitaratzean adieraziko da.
- Espediente akademikoen batez besteko noten kasuan, zerrendetan sartzeko aukera ematen duten titulazioenak baino ez dira islatzen; hau da, masterren eta/edo doktoregoen espediente akademikoaren batez besteko nota ez da fitxan islatzen, ez baitute eraginik merezimenduen baremoan.
- "Prestakuntza akademikoa" eta "Beste titulazio batzuk" ataletako baremoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskinean eta ondorengo aldaketetan ezarritakoaren arabera egingo da. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen da.

**Dokumentazioa egiaztatzea eta erregistratzea** aplikazio informatikoan:

- Dokumentazioa erantsi nahi izanez gero, behin erantsita, "**Dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea**" botoia klikatuko da, gordeta geratu dadin eta sarrera-erregistroa egin dadin. Bestela, ez da aurkeztu nahi den dokumentazioa jasota geratuko.

Aukerak/zerrendak unera bueltatzea
------------------------------------

Ikusi atxikitutako dokumentuak
--------------------------------

Dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea
---

- Erantsitako dokumentazioak pdf formatokoa izan beharko du; erantsi beharreko fitxategi bakoitzaren tamaina ezin izango da 3 MB baino gehiagokoa izan, eta fitxategi bakoitzaren izenak ezin izango ditu 50 karaktere baino gehiago izan, ezta karaktere berezirik ere: espazio motakoak, komatxoak, ehunekoak...